

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko maiatzaren 30ean hartutako erabakia, zeina Vitoria-Gasteizen lan-kontratazioa sustatzeko udal dirulaguntza-deialdiaren barruan 2. motako laguntzen aurrekontu-esleipena 1. motako laguntzetara aldatzea onesteko baita; 2024an enplegua sustatzeko toki-ekintzak egiteko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren laguntza-deialdiaren barruan daude dirulaguntza horiek

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespena ematea. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn (ostirala) argitaratu zen, (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean.

2024ko azaroaren 29an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi egin zituen Vitoria-Gasteizen lan-kontratazioa sustatzeko laguntza ekonomikoen udal programako deialdi publikoa eta oinarriak, zein 2024an enplegua sustatzeko toki-ekintzak egiteko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren laguntza-deialdiaren barruan baitaude. Laguntza horien xede da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden Vitoria-Gasteizko udalerriko langabeak kontratatzea, bereziki lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak kontratatzea faboratuta (2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zenbakia).

Deialdi horren 3. oinarrian ("Diruz lagun daitezkeen ekintzak"), diruz lagun daitezkeen bi ekintza-mota bereizten dira:

- 1. motako laguntzak (kontratu mugagabeak); eta,
- 2. motako laguntzak: Iraupen mugatuko kontratuak, ikuskizun publikoetako artista eta teknikari laguntzaileei dagozkienak.

Eta 7. oinarriak ("Baliabide ekonomikoak") laguntza-mota bakoitzaren zuzkidura ekonomikoa ezartzen du:

"Deialdiaren diru-hornidura bi milioi berrehun eta berrogeita hemeretzi mila eta laurogeita bi eurokoa (2.259.082,00 euro) izango da, eta partida hauen kontura egingo da:

2024ko udal aurrekontuko 0823.2411.480.15 partida, "Eskualde Plana, Lanbideren ekarpena" izenekoa (1.849.082,00 euro).

2024ko udal aurrekontuko 0823.2411.480.20 partida, "Eskualde Plana, Udalaren ekarpena kontratazioarako" izenekoa (410.000,00 euro).

Aurrekontu-izendapena honela banatuko da, bi laguntza moten artean:

- 1. mota: bi milioi ehun eta laurogeita bederatzi mila eta laurogeita bi euro (2.189.082,00 euro).
- 2. mota: hirurogeita hamar mila euro (70.000,00 euro)."

2025eko maiatzaren 27an egindako txosten teknikoan, 2. motako laguntzen aurrekontu-zuzkidura 1. motako laguntzetara aldatzea proposatzen da, eta, beraz, 1. motako laguntzen aurrekontu-zuzkidura bi milioi berrehun eta berrogeita hemeretzi mila eta laurogeita bi eurora igotzea (2.259.082,00 euro), izan ere, eskabideak aurkezteko epea amaituta ez da 2. motako laguntzetarako eskaerarik jaso, eta, aldiz, 1. motako laguntzetarako eskabide asko jaso da eta.

Era berean, 2025eko maiatzaren 26an, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak ebazpena tarteko, hutsik geratu da 2. motako laguntzen deialdia, eskabideak aurkezteko epean ez baita hautagairik aurkeztu.

Laguntza hauen deialdiaren zazpigarren oinarriak aukera ematen du aurrekontu-zuzkidura laguntza-moten artean aldatzeko, baldin eta bi mota horietako batean eman beharreko laguntzen zenbatekoa esleitutako zenbatekoa baino txikiagoa bada: "Laguntzak emateko prozedura bete ondoren mota horietako batean ematen diren laguntzen zenbateko osoa aurreko atalean adierazitakoa baino txikiagoa bada, deialdiko baldintzak bete arren aurrekontua nahikoa ez izateagatik hasiera batean laguntzarik gabe geratu diren beste laguntza-motako eskabideei dirulaguntza emateko baliatu ahalko da funts-soberakin hori".

Kontuan hartu da deialdiaren oinarriek aukera ematen dutela aurrekontu-zuzkidura laguntza-moten artean aldatzeko, eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamenduaren 59.5 artikuluan aurreikusitakoa, kasu honetan aplikagarria baita, aukera ematen da, deialdi irekiaren kasuan, aplikatu gabeko zenbatekoa hurrengo ebazpenetarako baliatzeko, baldin eta aldi bat amaitzean dagozkion dirulaguntzak eman badira eta esleitzeko dagoen gehieneko zenbatekoa agortu ez bada.

Egiaztatu da 2025erako udal-aurrekontuko 0823.2411.480.15 partidan, "Eskualde plana, Lanbideren ekarpena" izenekoa, eta 0823.2411.480.20 partidan "Eskualde plana, udalaren ekarpena kontrataziorako" izenekoa, badela horretarako zuzkidura nahikoa eta egokia, eta deialdiaren zazpigarren oinarrian aurreikusita, zuzkidura ekonomikoak hartzeko.

Tokiko Gobernu Batzarrak du laguntza-deialdiak eta horietako baldintzak onesteko —eta behar izanez gero aldatzeko— eskumena, beraren egitekoa baita kudeaketa ekonomikoa eta, beraz, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa bideratzea, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 127. artikuluko 1.g) eta 2. ataletan eta dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren (2023ko uztailaren 28ko ALHAOn, 88, zenbakian argitaratua) 8.1 artikuluan finkatutakoaren ildotik.

ERABAKIA

Lehenengoa. Onestea Vitoria-Gasteizen lan-kontratazioa sustatzeko udal dirulaguntza-deialdiaren barruan 2. motako laguntzen aurrekontu-esleipena 1. motako laguntzetara aldatzea. Laguntza horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak 2024an enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako duen laguntza-deialdiaren barruan daude. 1. motako laguntzen zenbatekoa 70.000,00 eurotan handituko da, eta, horrela, 1. motako laguntzen aurrekontu-esleipena bi milioi berrehun eta berrogeita hemeretzi mila eta laurogeita bi eurokoa izango da (2.259.082,00 euro), deialdiaren zazpigarren oinarriaren arabera (2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zebakia).

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn eta udalaren webgunean argitara dadila agintzea, ebazitakoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean jasota utzi ondoren.

Hirugarrena. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, alde zurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez dezakete, nahi bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko ekainaren 3an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ